

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA
GARRAIO
ETA HERRI LAN SAILA**

Zk-5853

265/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa. Honen bidez, onetsi egiten da Arabako Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak hartutako erabakia, errepideen alorreko funtzio eta zerbitzu batzuk Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik lurralde historikoetara eskualdatzeak Arabako Lurralde Historikoan izango duen eragina zehazteari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsi zenak) bere 10.34 artikuluan ezartzen duenez, errepide eta bideen alorrean lurralde historikoetako foru aldundiek osorik gordeko dituzte lehendik dituzten araubide juridikoa eta eskumenak, bai eta Estatutuaren 3. artikulua araberaren berreskura ditzaketena ere. Horrez gain, Konstituzioaren 148.1.5. artikulua aukera ematen die autonomia erkidegoei ibilbide osoa erkidegoaren lurraldean egiten duten errepideen gaineko eskumenak bereganatzeko.

Azaroren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak, foru erakundeei bakarrik ematen die errepide eta bideen plangintza, proiektuak, eraikuntza, mantentzea, aldatketak, erabilera eta ustiapena egiteko eskumena. Autonomia Erkidegoko errepide-sareen arteko koordinazio egokia bermatzeko, foru erakundeek erkidego osorako erakundeek onetsitako plan nagusia indarrean jarri beharko dute.

Abenduaren 3ko 1837/1999 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko Administrazioaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak zehaztu zituen Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobidearen funtzio eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, autonomia estatutuak xedatutakoa betez. Zehazki, erabaki horretako B).1 idatz-zatian jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurralde historikoen eskumen-araubidearen arabera bereganatuko du posizio juridikoa, haien erakunde-arauek ezartzen dutenarekin bat etorriz.

Kontuan izan behar da gaitasun estatutario berria —Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobidea Estatuko Administrazioetik eskualdatzea ahalbidetzen duena— Autonomia Erkidegoaren barruan eskualdatzeak ez duela eskumenei loturiko ondorio zuzenik, ez eta ondorio juridiko zuzenik ere Arabako Lurralde Historikorengan; izan ere, lurralde historiko horri ez zaio

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS**

Nº-5853

DECRETO 265/2000, de 19 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de Álava, sobre determinación de efectos en el Territorio Histórico de Álava del traspaso, desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los Territorios Históricos, de funciones y servicios en materia de carreteras.

El artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que en materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el artículo 148.1.5.ª de la Constitución, que permite asumir competencias sobre las carreteras cuyo itinerario se desarrolla íntegramente en el territorio de la Comunidad Autónoma, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostentan o que, en su caso, hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de este Estatuto.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos, en sus respectivos ámbitos territoriales y a través del artículo 7.a).8, la competencia exclusiva para la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, uso y explotación de carreteras y caminos, debiendo poner en vigor, al objeto de asegurar la debida coordinación de las redes de carreteras de la Comunidad Autónoma, el Plan General aprobado por las Instituciones Comunes.

Mediante Real Decreto 1837/1999, de 3 de diciembre, se procedió, en ejecución de las previsiones del Estatuto de Autonomía, a traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones y servicios concretados por la Comisión Mixta de Transferencias entre la Administración del Estado y la Comunidad Autónoma, sobre la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia). En concreto, el apartado B).1 de dicho Acuerdo viene a detallar que la posición jurídica de la Comunidad Autónoma del País Vasco es asumida en relación al régimen competencial de sus Territorios Históricos, conforme determinen sus normas institucionales.

Debe considerarse que la traslación interna en el seno de la Comunidad Autónoma de la nueva capacidad estatutaria que activa el traspaso desde la Administración del Estado de la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia) no produce efectos jurídico-competenciales directos sobre el Territorio Histórico de Álava, dado que no recibe traspaso alguno de servicios al discu-

inolako zerbitzurik eskualdatuko, A-8 autobidea osoz Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetatik igarotzen delako.

Hala eta guztiz ere, Autonomia Erkidegoaren baitako finantza-araubidea integratua denez gero, aipaturiko eskualdatzeak une honetako eragin ekonomikoak izan behar ditu araubide horretan. Horrek ez du esan nahi indarrean dagoen legeria —azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22.8 artikulua aipatzen duena— aplikatzearen ondorioz etorkizunean egoki diren araudiak aintzat hartuko ez direnik.

Orain arte adierazitako guztia kontuan hartuz, aipaturiko 27/1983 Legearen lehen xedapen iragankorren bidez ezarritako Bitariko Batzordeak errepideen arloko funtzioak eta zerbitzuak lurralde historikoei eskualdatzeak Arabako Lurralde Historikoan zein eragin izan behar dituen zehaztu du, eta horri buruzko erabaki egokia hartu du 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran. Eta hori guztia, ekainaren 19ko 194/1984 Dekretuak xedatzen duenaren arabera egin du; Dekretu horrek Erkidego osorako erakundeak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren arteko zerbitzu-eskualdatzeak egiteko arauak onesten ditu.

Horren indarrez, aipaturiko 27/1983 Legearen lehen xedapen iragankorrean xedaturikoa betetz, Jaurlaritzako lehendakariordeak eta Garraio eta Herri Lan sailburuak batera egindako proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko abenduaren 19an egindako bileran onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak hartutako Erabakia onestea. Erabaki horren bidez, errepideen arloan lurralde historikoen eskumenekoak diren funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeak Arabako Lurralde Historikoan zein eragin izango dituen zehazten dira. Bitariko Batzordeak 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran onetsi zuen Erabaki hori, eta Dekretu honen Eranskinean jasota dago.

2. artikulua.— Zehazten diren eraginak Bitariko Batzordearen Erabakian bertan adierazitakoari jarraiki aplikatuko dira.

3. artikulua.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta dagokion Foru Dekretua, berriz, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean; Dekretua aldizkari horietan argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 19an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ALVARO AMMAN RABANERA

rrir la autopista A-8 íntegramente por territorio de Bizkaia y Gipuzkoa.

No obstante lo anterior, el carácter integrado del régimen financiero interno de la Comunidad Autónoma hace que la citada transferencia deba producir efectos económicos actuales en dicho régimen, sin perjuicio de las regularizaciones que en el futuro procedan en función de la aplicación de la legislación en vigor a la que se refiere el artículo 22. Octavo de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre.

En atención a las anteriores consideraciones, la Comisión Mixta establecida en la disposición transitoria primera de la mencionada Ley 27/1983 ha procedido según lo dispuesto en el Decreto 194/1984, de 19 de junio, por el que se aprobaron las normas de traspaso de servicios entre las Instituciones Comunes y el Territorio Histórico de Álava, a concretar los efectos que en dicho Territorio Histórico debe producir el traspaso a los Territorios Históricos de funciones y servicios en materia de carreteras, adoptando al respecto el oportuno Acuerdo en su sesión del pleno celebrado el 14 de diciembre de 2000.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en la disposición transitoria primera de la citada Ley 27/1983, a propuesta conjunta de la Vicepresidenta del Gobierno, y del Consejero de Transportes y Obras Públicas, y previa aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 19 de diciembre de 2000.

DISPONGO:

Artículo 1.— Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Excma. Diputación Foral de Álava, por el que se determinan los efectos que produce en el Territorio Histórico de Álava el traspaso de funciones y servicios correspondientes a la competencia de los Territorios Históricos en materia de carreteras, adoptado por el pleno de dicha Comisión en su reunión de 14 de diciembre de 2000, que se transcribe como Anexo al presente Decreto.

Artículo 2.— Los efectos que se determinan se aplicarán conforme se especifica en el propio Acuerdo de la Comisión Mixta.

Artículo 3.— Este Decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, insertándose a su vez el oportuno Decreto Foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, entrando en vigor el mismo día de su publicación en dichos Boletines.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ALVARO AMMAN RABANERA.

ERANSKINA

Sabino Torre Díez jaunak, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeko idazkaria den aldetik, hau

EGIAZTATZEN DU:

Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak, 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran, errepideen arloko funtzioak eta zerbitzuak Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik lurralde historikoetako foru-erakundeei eskualdatzeak Arabako Lurralde Historikoan zein eragin dituen zehaztea erabaki zuela, jarraian zehazten den bezala:

A) Arabako Lurralde Historikoak errepideen arloan izango dituen eskumenak.

Erabaki hau 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak, 7.a).8 artikuluan jasotzen duen eskumen-araudia betez egingo da; horrez gain, kontuan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegorako autonomia estatutuak 10.34 artikuluan xedatzen duena eta aplikagarri diren gainerrako araudiak.

B) Balorazio ekonomikoa.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoei Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobidearen funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeak Erabaki honetan zehazten diren ondorio ekonomikoa eragiten ditu, jarraian adierazten den bezala:

1.- Eskualdatzen diren funtzio eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegorako 2000ko ekitaldian izango duten urteko guztizko kostua, ikuskaritza teknikoari dagokionez, Erabaki honi erantsitako zerrendan jasota dago.

2.- Indarrean dagoen emakida-kontratuaren iraungitze-datatik aurrera, eskualdatzen diren funtzio eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoarentzat urteko izango duten guztizko kostuaren baitan sartuko da, halaber, Gobernuak enpresa emakidadunean duen ordezkariari dagokiona ere.

3.- Eskualdatzeak indarra hartzen duen eguna ekitaldion urtarrilaren 1arekin bat etorriko ez balitz, dagokion ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegorako urteko guztizko kostua hainbanatu egingo da, lurralde historikoek eskualdatzea bere gain hartu duten urtearen zatiarekin proportzioan.

C) Eskualdatzea indarrean noiz jarriko den.

Erabaki hau onesteko Dekretuak indarra hartzen duen eguna edozein delarik ere, eskualdatzea 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izango da eraginkorra.

Eta jasota gera dadin, agiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 14an.

ANEXO

D. Sabino Torre Díez, Secretario de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Excma. Diputación Foral de Álava

CERTIFICA:

Que en el Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias celebrado el 14 de diciembre de 2000, se acordó establecer los efectos que produce en el Territorio Histórico de Álava el traspaso, desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma a los Organos Forales de los Territorios Históricos, de funciones y servicios en materia de carreteras, de acuerdo con los términos siguientes:

A) Competencias del Territorio Histórico de Álava en materia de carreteras.

El presente Acuerdo se realiza al amparo de la regulación competencial que contempla el artículo 7.a).8 de la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, y de acuerdo con lo previsto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y demás normativa de general aplicación.

B) Valoración económica.

El traspaso a los Territorios Históricos de Bizkaia y Gipuzkoa, de funciones y servicios en relación con la autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia), origina los efectos económicos que se establecen en el presente Acuerdo conforme a los siguientes términos:

1.- El coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2000 de las funciones y servicios que se traspasan, referentes a la Inspección Técnica, se recoge en la relación anexa al presente Acuerdo.

2.- A partir de la fecha de vencimiento del contrato de concesión vigente, el coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios que se traspasan incluirá asimismo el referente a la Delegación del Gobierno en la concesionaria.

3.- En el supuesto en que la efectividad del traspaso no coincidiese con el uno de enero del ejercicio se procederá a prorratear el coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el ejercicio que corresponda, proporcionalmente a la parte del año en que los Territorios Históricos hubieran asumido efectivamente el traspaso.

C) Fecha de efectividad.

Sin perjuicio de la entrada en vigor del Decreto aprobatorio del presente Acuerdo, sus efectos resultarán eficaces a partir del día 1 de enero de 2001.

Y para que conste, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2000.

Erantsitako zerrenda

2000 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegorako urteko guztizko kostua, errepideak lurralde historikoei eskualdatzearen ondorioz

11. atala.– Garraio eta Herri Lanak

	Pezetak
Ikuskaritza teknikoa	120.374

HERRIZAINGO SAILA**Zk-5854**

277/2000 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudia aldarazi duena.

Egun indarrean dagoen Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren aldarazpena, Dekretu honen bidez egin dena, bi arrazoiengatik burutu da: alde batetik, joko aretoetan eskura diren makinaren gehieneko kopurua lokal horietako joko-eskariaren neurrira moldatzeko; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoa araupetu duen 4/1991 Legearen Azken Xedapenetatik Bigarrenak gehieneko kopuru hori berrikusteko baimena ematen du. Beste alde batetik, joko aretoen jarduera zentzuzkotzeko, horiek antolatzeke irizpideak ezarriz, halako moldez non joko arloko lokalak eta elementuak kontzentratzea galaraziko baita.

Hori dela bide, Herrizaingo sailburuak proposatuz, Euskal Herriko Joko Kontseiluak txostena egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2000ko abenduaren 26an egin duen bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.– Urriaren 4ko 380/1994 Dekretuaren bidez onetsitako Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 2. artikulua aldarazi da, eta orain jarraian adierazten den idazketa izango du:

A) 2.2. artikulua, bigarren paragrafoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Joko Areto guztietan instalatu beharreko «B» motako makina kopuruak ezin du izan 1.500etik gorakoa».

B) 2.2. artikuluan beste paragrafo bat gehitu da:

Relación anexa

Coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2000 asociado al traspaso a los Territorios Históricos

Sección 11.– Transportes y Obras Públicas

	PTA
Inspección Técnica	120.374

DEPARTAMENTO DE INTERIOR**Nº-5854**

DECRETO 277/2000, de 26 de diciembre, de modificación del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

La modificación del vigente Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos que mediante el presente Decreto se realiza obedece a dos razones: en primer lugar, adecuar el número máximo de máquinas disponibles en salones de juego a la dimensión actual de la demanda de juego en estos locales; número máximo que la propia Ley 4/1991, Reguladora del Juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su Disposición Final Segunda, autoriza a revisar. En segundo lugar, racionalizar la actividad de los salones de juego, estableciendo criterios de ordenación de los mismos, de modo que se evite la concentración de locales y elementos de juego.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 26 de diciembre de 2000.

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el artículo 2 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, aprobado por el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, quedando redactado del siguiente modo:

A) Artículo 2.2, párrafo segundo.

El número máximo de máquinas de tipo «B» a instalar en la totalidad de los Salones de Juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco no podrá ser superior a 1.500»

B) Se añade un nuevo párrafo al artículo 2.2.